

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Araban, Legutioko udalerrian, Legutioko Etxebarri auzoko 1. zenbakiko etxebizitzan sortutako hondakin urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2019-0016

Eskatzailea: María Ángeles Iturriaga Lizarralde.

María Ángeles Iturriaga Lizarralde titularrak URaren Mediterraneoko Arroen Bulegoari eskatu dio Legutioko udalerrian dagoen etxebizitza batean (3. poligonoan 271. lursailean) sortutako hondakin-uren isurketarako baimena. Arazketa sistema berri bat instalatuko da urak tratatzeko. Horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Legutioko udalean edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 1ean

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
JAVIER AGUIRRE ORCAJO